



2

CEAR-Euskadiren lan-koadernoak

(I) Generoa eta Genero-ikuspegia

(II) Genero-arrazoiengatiko jazarpena:
Asilo-eskubidea emakumezkoen oinarritzko
eskubideak urratzearen aurka

Material hauek hurrengo pertsonak landu dituzte: Xabier Agirre, Xabier Aguiar, Itziar Caballero, Raquel Celis (Koord), Silvia Díaz, Leire Laso, Iñaki Ramirez de Olano eta Maider Zarraga

Proiektuaren koordinatzailea: Fernando Zubizarreta



CEAR-Euskadi

Cristo 9B – 5º
48007 Bilbao
t 94 4248844
f 94 4245938
ceareuskadi@cear.es
www.cear.es

Finantziatzaia:



Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Bizkaia

Edizio-urtea eta -lekua: Bilbo 2007an
Euskarazko itzulpena: Bakun Itzulpen
eta Argitalpen Zerbitzuak, S.L.
Diseinu Grafikoa: Alfredo Requejo

Aurkibidea



Sarrera eta helburuak	3
Garapena eta metodologia	3
Lehengo zatia	
(I) Generoa eta Genero-ikuspegia	
1. Dinamika	6
2. Dinamika	8
Bigarren zatia	
(II) Genero-arrazoiengatiko jazarpena: Asilo-eskubidea emakumezkoen oinarritzko eskubideak urratzearen aurka	
3. Dinamika	10
4. Dinamika	12
Eranskinak	
Materialak – Lehengo zatia	14
Materialak – Bigarren zatia	22
Ebaluazio-galdesorta	29

Sarrera eta helburuak

Mintegi honetan asiloaren errealitatera Genero-ikuspegitik hurbiltzen saiatzea; testuinguru batzuetan emakumezkoek emakumezko izateagatik jasaten dituzten giza eskubideen urraketak ezagutzeko ahaleginak egitea.

LEHENGO ZATIA

Genero kontzeptuaren inguruan arituko gara lanean:

- Eraikuntza psikosoziala
- Genero-ikuspegia

BIGARREN ZATIA

Asilo-eskubidea Genero-ikuspegitik aztertuko dugu honako honetarako:

- 1951ko Genevako Hitzarmenak jasotzen dituen arrazoiak direla-eta bereziki emakumezkoek jasaten dituzten abusuak ezagutzeko.
 - (Familia barruko indarkeria, behartutako familia-plangintza, antzutzeak, balore eta ohitura moralak ez betetzeagatik zigorrak, orientazio sexualarengatik diskriminazioa...)
- Emakumezkoak zein testuingurutan jazartzen dituzten ikusteko.
- Asilo-politikak errealitate horrekin bat datozen aztertzeko.

Garapena eta metodologia

Mintegiko metodologia parte-hartzailea izango da, eta Genero-ikuspegia erabiliko dugu. Taldetan egingo dugu lan, parte-hartzaileen artean iritzi eta uste trukaketa dinamiken bidez.

Talde bakoitzean, gehienez ere, 5 edo 6 pertsona egongo dira.

Bertaratutakoen arabera egin eta hiru biribiletan banatuko dira, talde batek bestea entzun gabe eztabaida dezan. Taldeak egiterakoan heterogeneoak izan daitezen saiatuko gara (genero, nazionalitate, adin eta abar bezalako gaiak zainduz).


Mintegia bi zatitan egituratuta dago: 3 orduko bi lan-saio egingo dira.

Dinamikak lantzeko aurkezpen teorikoak behar ditugu, eta horretarako CEAR-Euskadiren teoria-koadernoak II erabiliko dugu.

Garrantzitsua: Lehenengo saioak ez du bigarrena eskatzen, izan ere, hartan generoaren eraikuntza soziala eta Genero-ikuspegia landuko ditugu. Bigarren saioak, aldiz, lehenengoa eskatzen du, izan ere, hartan oinarritzen da bere eduki eta gaiak lantzeko.

- 2 saio
- 5 edo 6 pertsonako lan-taldeak.
- Areto handia
- 3 orduko saioak.

Ideiak ematera bultzatu eta eztabaidak sustatuko ditugu. Kasu adierazgarriak erabiliko ditugu.



Lehenengo zatia

Generoa eta Genero-ikuspegia

Lehenengo saioan bi dinamika landuko ditugu:

1. Dinamika:

Aurkezpen praktikoa: Errealitatea ez da neutroa.

- Materialak:

Azar Nafisi-ren 'Leer Lolita en Teherán: 'liburuko testua da. Bi bertsio ditugu: alde batetik, aldatutakoa (pertsonaia femeninoak maskulinoekin trukatu ditugu); eta, bestetik, jatorrizkoa.

- Ikus 1. eta 4. Eranskinak.

Taldeek aldatutako bertsioari buruz erantzun beharreko Galdera-gidoia.

- Ikus 2. Eranskina.

Bi testuetako esaldiak, taldeek azaldu beharrekoak.

- Ikus 3. eta 5. Eranskinak.

>> Oharra: Testu bakoitzetik kopia bana behar dugu parte-hartzaile bakoitzarentzat.

2. Dinamika:

Aurkezpen praktikoa: Gizonezkoen eta emakumezkoen errealitatea ezberdina da.

- Materialak:

CEAR-en 2004ko Txostenean dagoen benetako testua: 'Errefuxiatuen egoera Espainian' ('Tramitera onartzeko prozedura' atala, Asilo-eskatzailen egoera psikologikoen eragileak).

- Ikus 6. Eranskina.

Taldeek testuari buruz erantzun beharreko Galdera-gidoia.

- Ikus 7. Eranskina.

>> Oharra: Testu bakoitzetik kopia bana behar dugu parte-hartzaile bakoitzarentzat.



Aurkezpen teorikoa: (I) Generoa eta Genero-ikuspegia

Laguntza teorikoa: CEAR-Euskadiren Teoria-koadernoak II: (I) Generoa eta Genero-ikuspegia eta (II) Genero-arrazoiengatiko jazarpena: Asilo-eskubidea emakumezkoen oinarritzko eskubideak urratzearen aurka.



Bigarren zatia

Genero-arrazoiengatik jazarpenera: Asilo-eskubidea emakumezkoen oinarritzko eskubideak urratzearen aurka

Bigarren saioan bi dinamika erabiliko ditugu:

3. Dinamika:

Aurkezpen praktikoa: Emakumezkoen giza eskubideak (era argian ikusiko dugu oinarritzko eskubideak maizago urratzen direla emakumezkoen kasuan).

• Materialak:

Oinarritzko eskubideen urraketa zerrenda.

- Ikus 8. Eranskina.

Garrantzitsua: zerrendan adierazitako urraketak fitxetan jarri behar ditugu. Fitxa bakoitzean eskubide-urraketa bat azalduko da, taldetan banatu ahal ditzagun.

Hiru zutabetan banatutako papelografoak edo arbela:

- Emakumezkoen oinarritzko eskubideak gizonetzkoenak baino maizago urratzen diren kasuak.
- Gizonetzkoen oinarritzko eskubideak emakumezkoenak baino maizago urratzen diren kasuak.
- Gizonetzkoen nahiz emakumezkoen oinarritzko eskubideak antzeko maiztasunarekin urratzen diren kasuak.

4. Dinamika:


Aurkezpen praktikoa: Generoa eta Asilo-eskubidea: sarrera.

• Materialak:

Jazarpenera-arrazoiak ≠ iritzi politiko eta gizarte-talde kontzeptuetan jarriko dugu arreta. Horretarako, galderak, kontzeptu teorikoak eta kasu adierazgarriak erabiliko ditugu.

- Ikus 10. , 11. eta 12. Eranskinak.

>> Oharra: Testu bakoitzetik kopia bana behar dugu parte-hartzaile bakoitzarentzat.



Aurkezpen teorikoa: (II) Genero-arrazoiengatik jazarpenera: Asilo-eskubidea emakumezkoen oinarritzko eskubideak urratzearen aurka

Laguntza teorikoa: CEAR-Euskadiren teoria-koadernoak II: (I) Generoa eta Genero-ikuspegia eta (II) Genero-arrazoiengatik jazarpenera: Asilo-eskubidea emakumezkoen oinarritzko eskubideak urratzearen aurka.

Lehenengo saioan landutako Genero-ikuspegia erabiliko dugu bigarrenengan garatutako Asilo-eskubidea beste begirada batez ikusteko.



Ebaluazioa

Amaitzeko, parte-hartzaileek Ebaluazio-galdesorta bete beharko dute, eta horren bidez, edukiak, erabilitako metodologia eta bideratzaileen lana baloratu ahal izango ditugu.

- Ikus 13. Eranskina.

>> Oharra: Ebaluazio-galdesortatik kopia bana behar dugu taldekide bakoitzarentzat.

SARRERA: Aurkezpena eta banaketa taldeka

10 minutu

Bideratzaileek beren burua aurkeztuko dute eta Mintegiaren helburua nahiz lehenengo saio honen jomugak azalduko dituzte.

Ondoren, parte-hartzaileak 5 edo 6 pertsonako taldetan banatuko dituzte.

1. DINAMIKA

Denbora guztira: 80 minutu

ERREALITATEA EZ DA NEUTROA

Zein da dinamika honen jomuga?

Protagonista gizonetzkoa ala emakumezkoa izateak, gure ustez, egoerak eta testuinguruak zenbateraino alda ditzakeen agerian uzten laguntzen digu dinamika honek.

Parte-hartzaileak talde txikitan banatuta daude; gehienez ere, 5 edo 6 pertsonakoak dira. Horren helburua, lan-saioetan guztiek parte hartzea sustatzea da.

Dinamikarako Azar Nafisiren Leer Lolita en Teherán: 'liburuko pasarte bat erabiliko dugu.

Hori benetako historia batean oinarrituta dago (Iranen, Homeiniren iraultza islamiarrean girotutakoa; garai hark

atzerakada ekarri zuen, eta emakumezkoek eskubide eta askatasunak galdu zituzten).

Erabiliko dugun pasartea idazleak Iranen, Homeiniren iraultza islamiarrean, bizitakoan oinarritzen da. Testua bi eratan landuko dugu: gure errealitatea neutroa ez dela ikusteko bi bertsio ditugu: alde batetik, aldatutakoa (pertsonai femeninoak eta maskulinoak trukatu ditugu); eta, bestetik, jatorrizkoa.

Lehenbizi, aldatutako testua emango dugu, **horren jatorriari buruz ezer azaldu gabe**, eta egiazkoak iruditzen ez zaizkigun kontuak daudela ziurtzat joko dugu.

a

Parte-hartzaileek bakarka irakurriko dute Azar Nafisiren testu aldatua.



1. Eranskina.....



10 minutu

b

Jarraian, Galdera-gidoia emango diegu.



2. Eranskina



20 minutu

- Galderak bakarka erantzungo dituzte (10 min)
- Ondoren taldean bateratu egingo dituzte (10 min)

d

Erantzunak bateratu eta gero, irakurri berri duten testuko esaldi batzuk emango dizkiegu. Esaldi bakoitzak zer gogorarazten dien erantzun behar dute taldeka.



3. Eranskina.....



20 minutu

* Taldeko batek ateratzen doazen ondorioak jasoko ditu, geroago bileran bateratzeko.

e

Ondoren, 'Leer Lolita en Teherán: una historia de amor, libros y revolución' liburuko jatorrizko testua emango diegu irakur dezaten. **Testuaren jatorria azalduko diegu** eta baita hori benetako historia batean oinarrituta dagoela ere.



4. Eranskina



10 minutu

f

Jarraian, aldatutako testuarekin bezala, jatorrizko pasarteko esaldi literal batzuk azalduko dituzte.



5. Eranskina



20 minutu


* Taldeko batek ateratzen doazen ondorioak jasoko ditu, geroago bileran bateratzeko.



Lan egiteko erabili dugun testua irrealia, imajinaezina irudituko zaigu gizonezkoen kasuan munduko edozein lekutan; emakumezkoen kasuan, aldiz, erabat normaltzat joko dugu.



ATSEDENALDI BAT EGIN DEZAGUN



10 minutu



2. DINAMIKA

Denbora guztira: 30 minutu

GIZONEZKOEN ETA EMAKUMEZKOEN ERREALITATEA EZBERDINA DA

Zein da dinamika honen jomuga?

Dinamika honen bidez, egoera bakoitzaren protagonista gizonezkoa ala emakumezkoa den jakiteak (ez badakigu ez dugu errealitate osoa ikusiko) hori ulertzeko duen garrantzia nabarmentzen dugu.

Dinamika honetarako parte-hartzaileek 1. Dinamikako talde berdinetan jarraituko dute.

Asilo eta Aterperako Bulegoan, OARen (Madril) egindako Asilo-elkarrizketa baten testua emango diegu; 2004ko

Txostenean dagoen benetako testua dela azalduko diegu: 'Errefuxiatuen egoera Espainian' ('Tramitera onartzeko prozedura' atala, Asilo-eskatzaileen egoera psikologikoaren eragileak).

- * Testu nahiko neutroa da, eta generoa islatzen den aldi bakarretan @ hizkia jarri dugu, irakurtzerakoan, bere bizipena kontatzen ari den pertsona gizonezkoa edo emakumezkoa den jakin ez dezagun.

a

Parte-hartzaileek bakarka irakurriko dute testua.



6. Eranskina



10 minutu

b

Galdera-gidoia emango diegu, eta taldeka erantzun beharko dute.



7. Eranskina



20 minutu



Testua neutrala izateak, bizipena kontatzen ari dena emakumezkoa dela pentsarazten digu. Kasu horretan eta kontalaria gizonezkoa dela argitu zaigunean irudikatu ditugun oinarritzko eskubideen urraketak ez dira berdinak. Mutiko horrek, berez, trauma-ondoko estresa zuen, eta CEAREko profesionalekin konfiantza hartu arte (zortzi hilabeteren buruan) ezin izan zuen bizitakoa kontatu.



Eztabaida-bilera egingo dugu, eta hor taldetan ateratako ondorio guztiak jasoko dira.

- * Eztabaida-bilera egiteko garrantzitsua da parte-hartzaileak gelan lekuz aldatzea eta biribil handi bat osatzea.

Talde bakoitzeko pertsona batek azalduko ditu talde-dinamikan sortutako iritziak. Horiei buruzko eztabaida sustatuko dugu (hemen oso garrantzitsua da bideratzaileen

lana: gizonezkoek eta emakumezkoek parte hartzen dutela zaindu behar dute).

>> Oharra: Bileraren iraupena eztabaida-bizitasunaren araberakoa izango da. Garrantzitsua da malguak izatea, guztiak parte hartzera animatzeko eta ahalik eta ideia, iritzi edo zalantza gehienak sor daitezen.

AURKEZPEN TEORIKOA: Generoa eta Genero-ikuspegia

20 minutu

Aurkezpen teoriko motza: generoa, Genero-ikuspegia eta aurreratu beharreko alderdiak -genero-betaurrekoak-.

Parte-hartzaileak generoari buruzko funtsezko ideia bat-zuekin geratzea da helburua.



Laguntza teorikoa: CEAR-Euskadiren teoria-koadernoak II: (I) Generoa eta Genero-ikuspegia eta (II) Genero-arrazoiengatiko jazarpena: Asilo-eskubidea emakumezkoen oinarritzko eskubideak urratzearen aurka.



SAIOAREN AMAIERA

BIGARREN ZATIA: Genero-arrazoiengatiko jazarpena: Asilo-eskubidea emakumezkoen oinarritzko eskubideak urratzearen aurka

Parte-hartzaileak iritsi baino lehen:

Errefuxiatuaren definizioa eta 1951ko Genevako Hitzar-menak jasotzen dituen bost jazarpen-arrazoiak jarri ditugu horman.



9. Eranskina

Bi kartel horiek tailerrak iraun bitartean egongo dira ikusgai, eta oinarri bezala erabiliko ditugu.

Horretaz gain, hiru zutabetan banatutako papelografoak (edo arbel bat) zintzilikatu ditugu:

- Emakumezkoen oinarritzko eskubideak gizonezkoenak baino maizago urratzen diren kasuak
- Gizonezkoen oinarritzko eskubideak emakumezkoenak baino maizago urratzen diren kasuak
- Gizonezkoen nahiz emakumezkoen oinarritzko eskubideak antzeko maiztasunarekin urratzen diren kasuak

SARRERA: Aurkezpena eta banaketa taldeka

10 minutu

Bideratzaileek beren burua aurkeztuko dute eta Mintegiaren helburua nahiz bigarren saio honen jomugak azalduko dituzte.

Ondoren, parte-hartzaileak 5 edo 6 pertsonako taldetan banatuko dituzte.

3. DINAMIKA

Denbora guztira: 70 minutu

EMAKUMEZKOEN GIZA ESKUBIDEAK

Zein da dinamika honen jomuga?

Dinamika honen bidez, era argian ikusiko dugu oinarritzko eskubideak emakumezkoen kasuan maizago urratzen direla, eta baita emakumezkoek

emakumezko izateagatik urraketa jakinak jasaten ditugula ere.

Parte-hartzaileak taldetan banatuta daude; horiek, gehienez ere, 5 edo 6 pertsonakoak dira. Horren helburua, lan-saioetan guztiek parte hartzea sustatzea da.

a

Oinarritzko eskubideen fitxak talde guztien artean banatuko ditugu, talde bakoitzak antzeko kopurua izan dezan.



8. Eranskina

b

Taldeko kide guztien artean erabakiko dute eman dizkiegun fitxak zein zutabetan jarri.



15 minutu

d

Talde bakoitzeko ordezkari batek fitxak zutabeetan jarriko ditu (papelografoak edo arbela).



10 minutu

* Momentu honetan ez dugu talde bakoitzaren erabakiei buruz eztabaidatuko.

Behin talde guztiek fitxak jarritz gero, eztabaidari hasiera emango diogu; bideratzaileek dinamizatzeko dute galdera batzuk eginez:

- Fitxak zein zutabetan jarri erabakitzea kosta egin al zaizue?
- Taldean desadostasunik izan al da?
- Zergatik egin dugu banaketa hiru zutabetan?
- ...

Tailerrak iraun bitartean fitxak paperografoan utziko ditugu hainbeste emakumezkoak jasaten duten errealitate hori begien bistan izateko. Landu nahi ditugun beste gai batzuen



Era argi horren bidez, giza eskubideak emakumezkoek kasuan maizago urratzen direla ikusiko dugu (emakumezkoen kasuan maizago urratzen diren giza eskubideak ageri diren zutabea, dinamika amaitzean fitxaz betea agertuko da, eta besteak ia hutsik geratuko dira).

—emakumezkoen giza eskubideak, Genero-arrazoiengatik jazarpina eta Asilo-eskubidea— oinarri izango dira.

AURKEZPEN TEORIKOA:

Giza eskubideak eta Emakumezkoen giza eskubideak


15 minutu

Giza eskubideen kontzeptualizazio eta egitura historikoa gizonezkoen bizipen eta beharretan oinarritu da, eta emakumezkoenak alde batera utzi ditu. Horregatik, beha-

rrezkoa da emakumezkoen giza eskubideei buruz hitz egitea.



ATSEDENALDI BAT EGIN DEZAGUN



.....10 minutu



4. DINAMIKA

Denbora guztira: 90 minutu

GENEROA ETA ASILO-ESKUBIDEA

Zein da dinamika honen jomuga?

Asilo-eskubidera genero-ikuspegitik 'hurbiltzea'.

Dinamika hau egiteko parte-hartzaileak hasierako taldetan egongo dira. Asilo-eskubidearen interpretazioan jarriko dugu arreta: gure ustez, zer da Asilo-eskubidea?

(Galdera horri dinamika egiten ari garela erantzuten saiatuko gara).

a

Bideratzaile batek ozenki irakurriko du errefuxiatuaren definizioa (horman dugu), 1951ko Genevako Hitzarmenean ezarria, eta jazarpen-arrazoiak azpimarratuko ditu: arraza, erlijioa, nazionalitatea, gizarte-talde jakin batekoa izatea edo iritzi politikoak.

Dinamika horretan Hitzarmenean jasotako bi arrazoen inguruan lan egingo dugula azalduko dugu: iritzi politikoak eta gizarte-taldea.



9 Eranskina

b

Talde bakoitzari Galdera-gidoia emango diogu iritzi politikoak eta gizarte-taldea, beraien ustez, zer diren batera erantzun dezaten.



10. Eranskina



15 minutu

d

Galdera horiek erantzun ondoren honako hau emango diegu:

Benetako kasu bat: Sahar Saba-ren kasua: Afganistango Emakumezkoen Elkarte Iraultzaileko (RAWA) kidea. Herrialde horretako fundamentalistek gehien bilatzen dituzten pertsonetako bat da.

Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Goi Komisarioak (ACNURek) emandako iritzi politikoaren definizioa, horren inguruan eztabaidatu eta galdera batzuk erantzun ditzaten.



11. Eranskina



15 minutu

e

Horrezaz gain, **ACNURek** emandako **gizarte-taldearen** definizioa dakarren orri bat emango zaie.



12. Eranskina



10 minutu



Taldeetan jasotako ondorio guztiak bateratuko ditugu: Definitu eta galdetu berri diegunari buruz talde bakoitzak dioena jasoko dugu. Era berean, emakumezkoen bizipenak jakiteak eta testuinguru jakin batzuetan gizarte-talde jazarria direla onartzeak duen garrantzia azalduko dugu.

- * Eztabaida-bilera egiteko garrantzitsua da parte-hartzaileak gelan lekuz aldatzea eta biribil handi bat osatzea.

Talde bakoitzeko pertsona batek azalduko ditu dinamikan sortutako iritziak. Horiei buruzko eztabaida sustatuko dugu (hemen oso garrantzitsua da bideratzaileen lana: gizo-

nezkoek eta emakumezkoek parte hartzen dutela zaindu behar dute).

.....30 minutos

>> Oharra: Bileraren iraupena eztabaida-bizitasunaren araberakoa izango da. Garrantzitsua da malguak izatea, guztiak parte hartzera animatzeko eta ahalik eta ideia, iritzi eta zalantza gehienak sor daitezen.

AURKEZPEN TEORIKA: Generoa eta Asilo eskubidea

20 minutu

Aurkezpen teoriko motza: generoa, Asilo-eskubidea eta aurreratu beharreko eremuak —Asilo-eskubidearen inter-

pretazioa eta Asilo prozedura—.




Laguntza teorikoa: CEAR-Euskadiren teoria-koadernoak II: (I) Generoa eta Genero-ikuspegia eta (II) Genero-arrazoiengatikoz jazarpena: Asilo-eskubidea emakumezkoen oinarritzko eskubideak urratzearen aurka.



SAIOAREN AMAIERA

Eranskinak



LEHEN ZATIKO MATERIALAK:

Lehen zatian honako hauek erabiliko ditugu:

1. Dinamika: Errealitatea ez da neutroa

- Azar Nafisi-ren 'Leer Lolita en Teherán: una historia de amor, libros y revolución' liburuko testuko bertsio aldatua (pasarteak).

1. Eranskina

- Azar Nafisi-ren testuko bertsio aldatuari buruz erantzun beharreko Galdera-gidoia.

2. Eranskina

- Emandako pasartetik (Azar Nafisi-ren testuko bertsio aldatua) ateratako esaldi literalak.

3. Eranskina

- Azar Nafisi-ren 'Leer Lolita en Teherán: una historia de amor, libros y revolución' liburuko jatorrizko testua (pasarteak).

4. Eranskina

- Emandako pasarteko (Azar Nafisi-ren testuko jatorrizko bertsioa) esaldi literalak.

5. Eranskina

2. dinamika: Gizonezkoen eta emakumezkoen errealitatea ezberdina da.

- Asilo eta Babeserako Bulegoan, OARen egindako Asilo-elkarrizketa baten testua emango diegu, 2004ko Txostenetik ateratako benetako testua: 'Errefuxiatuen egoera Espainian' (Tramitera onartzeko prozedura atala, Asilo-eskatzaileen egoera psikologikoen eragileak).

6. Eranskina

- OARek egindako elkarrizketaren testuari buruzko Galdera-gidoia.

7. Eranskina



Iraultza hasi zenean maite nuen emakume batekin ezkondu nintzen. Bost urte geroago, nire semea jaio zenean, legeak atzerapauso izugarria emana zuten, nire aitonaren aurreko garairaino edo: Konstituzio berria onartu baino hilabete batzuk lehenago indargabetu zuten lehen legea: familia-babesa. Aipatu legeak gizonezkoek etxean eta lanean zituzten eskubideak bermatzen zituen. Ezkontzeko adina bederatzi urtetara (zortzi ilargi-urte eta erdi, esan ziguten) jaitsi zuten. Adulterio eta prostituzioak heriotza-zigorra zekarren: harrikatuz hiltzen zituzten. Gizona, legearen aurrean, emakumearen erdia balio izatera pasa zen. Shariako Legedia indarrean zegoen lege-sistema ordezkatu eta arau bihurtu zen. Nerabe nintzela bi gizonezko ikusi nituen ministro izatera iristen. Nire mutilak nerabe zirela, iraultza amaitu ostean, aipatu bi gizonezkoek heriotza-zigorra ezarri zieten Jaunaren aurka borrokatzeagatik eta prostituzioa sustatzeagatik. Bietako bat, Gizonezko-arazoen Ministroa, atzerrian zen iraultza eman zenean. Han geratu eta giza eta gizonezkoen eskubideen bozeramaile bihurtu zen. Bestea, Hezkuntza Ministroa eta nire institutuko zuzendari ohia, zaku batean sartu eta harrika eta makilakadez hil zuten. Nire neska-mutilek, denboraren poderioz, begirunez eta itxaropenez gogoratuko zituzten; iraganean haiek bezalako gizonezkoak jada izan bagenituen ez zegoen inongo arrazoirik etorkizunean ez izateko.

Gure gizartea azken gobernariak baino askoz ere aurreratuago zegoen, eta gizonezkoak, erlijio- eta ideologia-sinismenen gogoz kontra, kalera irten ziren lege berrien aurka protesta egitera. Boterea probatua zuten eta ez zuten hori borrokatu gabe alde egiten utziko.

OHARRAK

This image shows a full page of white paper with horizontal blue or grey ruling lines. The lines are evenly spaced and run across the width of the page, typical of notebook paper. There are no margins, text, or other markings on the page.

- A. Testu hori benetakoa dela uste al duzu?
- B. Herrialde edo testuinguru historiko zehatzen batean koka ahal zenuke?
- D. Zer egiten zaizu deigarri?

OHARRAK

This image shows a full page of blank white paper with horizontal ruling lines. The lines are evenly spaced and run across the width of the page, providing a template for writing or drawing. There are no margins, text, or other markings on the page.

Azar Nafisi-ren 'Leer Lolita en Teherán: una historia de amor, libros y revolución' liburuko jatorrizko testua (pasartea).

2. TESTUA

XX. mende hasieran gizonetzko edo emakumezko bila joateko adina —bederatzi urte, Shariako legeen arabera— hamahiru urte izatera pasa zen, eta geroago, hemezortzi. Nire amak ezkontidea aukeratua zuen, eta 1963ko Parlamenturako aukeratutako lehen sei emakumezkoen artean egon zen. Umea nintzenean, ez zegoen alde handirik nire eskubide eta mendebaldeko demokraziako emakumezkoenen artean. Orduan, baina, ez zegoen modan gure kultura eta demokrazia modernoak bateraezinak zirela pentsatze, ez eta demokrazia eta giza eskubideen bi bertsio (mendebaldekoa eta islamiarra) zeudela ere. Guztiak aukerak eta askatasuna nahi genituen. Hori dela eta, aldaketa iraultzailearen alde egin genuen eta eskubide gehiago, ez gutxiago, eskatu.

Iraultza hasi zenean maite nuen gizonezko batekin ezkondu nintzen. Bost urte geroago, nire alaba jaio zenean legeek atzerapauso izugarria emana zuten, nire amonaren aurreko garairaino edo: Konstituzio berria onartu baino hilabete batzuk lehenago indargabetu zuten lehen legea: familia-babesa. Aipatu legeak emakumezkoek etxean eta lanean zituzten eskubideak bermatzen zituen. Ezkontzeko adina bederatzi urtetara (zortzi ilargi-urte eta erdi, esan ziguten) jaitxi zen. Adulterio eta prostituzioak heriotza-zigorra zekarren: harrikatuz hiltzen zituzten. Gizona, legearen aurrean, gizonezkoaren erdia balio izatera pasa zen. Shariako Legedia indarrean zegoen lege-sistema ordezkatu eta arau bihurtu zen. Nerabe nintzela bi emakumezko ikusi nituen ministro izatera iristen. Nire neskak nerabe zirela, iraultza amaitu ostean, aipatu bi emakumezkoek heriotza-zigorra ezarri zieten Jaunaren aurka borrokatzeagatik eta prostituzioa sustatzeagatik. Bietako bat, Emakumezkoen arazoan Ministroa, atzerrian zen iraultza eman zenean. Hain geratu eta giza eta emakumezkoen eskubideen bozeramaile bihurtu zen. Bestea, Hezkuntza Ministroa eta nire institutuko zuzendari ohia, zaku batean sartu eta harrika eta makilakadez hil zuten. Nire neskek, denboraren poderioz, begirunez eta itxaropenez gogoratuko zituzten; iraganean haiek bezalakoa emakumezkoek jada izan bagenituen ez zegoen inongo arrazoirik etorkizunean ez izateko.

Gure gizartea azken gobernariak baino askoz ere aurreratuago zegoen, eta emakumezkoak, erlijio- eta ideologia-sinismenen gogoz kontra, kalera irten ziren lege berrien aurka protesta egitera. Boterea probatua zuten eta ez zuten hori borrokatu gabe alde egiten utziko.

Nafisi, Azar-ren liburuaren laburpena. 'Lolita en Teherán: Una historia de amor, libros y revolución' liburua irakurri.

OHARRAK

This image shows a blank sheet of white paper with horizontal ruling lines. The lines are evenly spaced and run across the width of the page. There are no margins, text, or other markings on the paper.

3. TESTUA

OHARRAK

This image shows a single sheet of white paper with horizontal ruling lines. The lines are evenly spaced and run across the width of the page. There are no margins, text, or other markings on the paper.


Testua behin irakurri ondoren:

- Hizlaria zer da, gizonzkoa ala emakumezkoa?
-Zergatik? Zerk pentsarazten dizu gizonzkoa ala emakumezkoa dela?
- Zein jazarpen mota jasan duela uste duzu?
- Zergatik lotsatzen dela uste duzu?

OHARRAK

[illegible]

Eranskinak



BIGARREN ZATIKO MATERIALAK

Bigarren saioan honako hauek erabiliko ditugu:

3. Dinamika: Oinarrizko eskubide urraketen zerrenda:

- Oinarrizko eskubide urraketen zerrenda.

8. Eranskina

Garrantzitsua: Dinamika honetarako zerrenda banako fitxetan jarri behar dugu. Fitxa bakoitzean eskubide urraketa bat azalduko da, taldetan banatu ahal ditza-gun.

- Hiru zutabetan banatutako papelografoak edo arbela:
- Emakumezkoen oinarrizko eskubideak gizonezkoenak baino maizago urratzen diren kasuak.
- Gizonezkoen oinarrizko eskubideak emakumezkoenak baino maizago urratzen diren kasuak.
- Gizonezkoen nahiz emakumezkoen oinarrizko eskubideak antzeko maiztasunarekin urratzen diren kasuak.

4. Dinamika: Generoa eta Asilo-eskubidea:

- Errefuxiatuaren definizioa eta 1951ko Genevako Hitzar-menak jasotzen dituen jazarpen-arrazoiak (tailerraren bigarren zatiak iraun bitartean horman jartzeko).

9. Eranskina

- iritzi politiko eta gizarte-talde kontzeptuei buruzko galderak.

10. Eranskina

- Sahar Saba-ren kasua eta ACNURen iritzi politiko kontzeptuaren definizioa eta galderak.

11. Eranskina

- ACNURen gizarte-talde kontzeptuaren definizioa eta galderak.

12. Eranskina

Mintegi-ebaluazioa

13. Eranskina



• Alargunen eskubide-galerak • Alargunak erretzea • Ohore-bidegabekeriak • Kartzelaratze arbitrarioa • Oinazea • Tratu txarrak • Bortxaketa • Genitalen mozketa • Erailketa • Heriotza-mehatxua • Antzutze behartua • Ezkontza behartua • Sexu-abusuak • Lan-esplotazioa • Sexu-esplotazioa • Prostituzio behartua • Bahiketa • Askatasunik eza • Homosexualitatearen aurkako zigorrak • Transexualitatearen aurkako zigorrak • Lekualdaketa behartua • Hautatze-abortua	• Talde armatu batean derrigorrez errekrutatzea • Genozidioa • Feminizidioa • Haur-hilketa • Estatu-terrorismoa • Adierazpen-askatasunik eza • Ingurumen-hondamena • Etxebizitza duina izateko aukera ez ematea • Osasun-zerbitzurik ez ematea • Ikasteko aukera ez ematea • Ur edangarririk eskuratu ahal ezin izatea • Bozkatzeko eskubidea kentzea • Pertsonen salerosketa • Lan-jazarpena • Epaietarik gabe kartzelaratzea • Laguntza humanitariorik ez ematea • Dotearengatiko krimenak • Erlijio-kultuak debekatzea • Erlijio bat inposatzea • Lurrak kentzea • Leku batetik bestera joateko eskubidea era-biltzen ez uztea
---	---

This image shows a blank sheet of white paper with horizontal ruling lines. The lines are evenly spaced and run across the width of the page. There are no margins, text, or other markings on the paper.

Alargunen eskubide-galerak



Alargunak erretzea



Ohore-bidegabekeriak



Kartzelaratze arbitrarioa



Oinazea



Tratu txarrak



Bortxaketa



Genitalen mozaketa



Erailketa



Heriotza-mehatxua



Antzutze behartua



Ezkontza behartua



Sexu-abusuak



Lan-esplotazioa



Sexu-esplotazioa



Prostituzio behartua



Bahiketa



Askatasunik eza



**Homosexualitatearen aurkako
zigorrak**



**Transexualitatearen aurkako
zigorrak**



Lekualdaketa behartua



Hautatze-abortiona



**Talde armatu batean derrigorrez
errekrutatzea**



Genozidioa



Feminizidioa



Haur-hilketa



Estatu-terrorismoa



Adierazpen-askatasunik eza



Ingurumen-hondamena



**Etxebizitza duina izateko aukera
ez ematea**



Osasun-zerbitzurik ez ematea



Ikasteko aukera ez ematea



**Ur edangarririk eskuratu ahal ezin
izatea**



Bozkatzeko eskubidea kentzea



Pertsonen salerosketa



Lan-jazarpena



Epaiketarik gabe kartzelaratzea



**Laguntza humanitariorik ez
ematea**



Dotearengatiko krimenak



Erljio-kultuak debekatzea



Erljio bat inposatzea



Lurrak kentzea



**Leku batetik bestera joateko
eskubidea erabiltzen ez uztea**



Errefuxiatua: Arraza, erlijio, nazionalitate, gizarte-talde jakin batekoa izateagatik edo iritzi politikoengatik jazarria izateko beldur arrazoizkoa duen pertsona, bere nazionalitateko herrialdetik kanpo dagoena eta herrialde horretako babesa lortu ezin duena edo beldur horiengatik lortu nahi ez duena (1951ko Genevako Hitzarmena).

Jazarpen-arrazoiak:

- Arraza
- Erlijioa
- Nazionalitatea
- Gizarte-talde jakin batekoa izatea
- Iritzi politikoak

IRITZI POLITIKOA

- GIZARTE-TALDEA**

- Zer da gizarte-talde bat?
- Noiz jazarri zaitzakete gizarte-talde batekoa izateagatik? Jarri adibide batzuk

OHARRAK

[illegible]

IRITZI POLITIKOA

Sahar Saba: Afganistango Emakumezkoen Elkarte Iraultzaileko (RAWA, elkarte feminista) kidea. Herrialde honetan fundamentalistek gehien bilatzen dituzten pertsonetako bat da.

- Sahar Saba elkarte horretako kide izatea 'iritzi politiko' bat al da?
- Zergatik bai?
- Zergatik ez?

Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Goi-komisarioak iritzi politikoa kontzeptua honela definitu du: *‘Agintariek edo gizarteak onartzen ez dituen usteak, haien politiken, ohituren edo metodoen kritika direnak’.*

OHARRAK

This image shows a full page of white paper with horizontal blue or grey ruling lines, typical of notebook paper. The lines are evenly spaced and run across the width of the page. There are no margins, text, or other markings on the paper.

MINTEGI-EBALUAZIOA

Mintegiko eduki eta metodologia-egokitzapenari buruzko zure balorazio eta proposamenak azaltzera gonbidatzen zaitugu.

1. Mintegia espero zenuen bezalakoa izan al da?

Bai ☐ Ez ☐

Zer espero zenuen?

Espero ez zenuen eta interesgarria iruditua zaizun gairik egon al da?

2. Mintegiko edukiaren balorazioa:

Oso ona ☐ Ona ☐ Hala-moduzkoa ☐ Txarra ☐ Oso Txarra ☐

Iruzkinak:

3. Mintegiko gaien artean kontu garrantzitsuren bat falta zela iruditua al zaizu?

Bai ☐ Ez ☐

Zein:
